



ELKARTASUN BEROA AIZTONDORA EGUNEAN

Preso, iheslari eta hauen senideei elkartasuna azaldu zieten atzo Villabonan; bazkarian 200 lagun elkartu ziren » 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-04-25

VIII. URTEA 1983. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ikuskizuna eskaini zuten auto gidariek atzoko Ñañarri Rallysprintean. ASIER IMAZ

ANDER ETA ANGELA VILARIÑOK IRABAZI DUTE RALLYSPRINTA

AMEZKETA-ALEGIA Irurako Ikastolaren aldeko III. Ñañarri proban jendea gustura gelditu da auto gidariek eskainitako ikuskizunarekin » 6

SEGUNDA IZTUETA ARMENDARIZ ARTISTA

«Sorkuntzan eta modu aktiboan denbora pasatzea osasungarria da»

BERASTEGI 82 urte betetzear dituen emakume honen eskuek arterako dohain berezia dute » 4



Louari Abdelfetah korrikalariak irabazi zuen sailkapen orokorra. ESTI EZEIZA

Louari Abdelfetah eta Maitane Melero nagusitu dira Leitzan

LEITZA XXXII. Herri Krosean lehen leitzarrak Fernando Irazoki eta Ane Egizabal izan dira » 7



Euskal Herria kalea 2, behera
IBARRA • Tel.: 943 24 50 14

Desagertzearen liburua (XIII)



» Uzturretik

Koldobika Jauregi

Udaberrri hasiera izango zen itsas urrunetik behe lainoz kargatutako lurrirez zalditziaren eraso hasi zanian.

Nire uharte txiki honetan aspaldian ez nuen toporik egin inorekin eta horregatik ene sorpresa, aurrez aurre ikusi nituenean zaldun

haiek. Behe laino hura zaratsua zen eta egun batzuk igaroziren ene uharte aurreraino iritsi arte, eta beti gertatzen dena... ona espero eta txarra suertatu, halakoa bai zen gure euskal Herria.

Aurrez aurre txapel zuri zaldunen lehorraraztea izan zen, gure desagertze garai bateko beste atala triste bat.

Saiatu, saiatu ziren neure lurpuska hura penintsula aldera eramaten, Erregea! Erregea! aldarrikatuz...

Zumalakarregi mamu txapel txuri, «el tigre de las Amezkoas» eta zein kulpia izango zuten tigre gaixok holako elementu bat tokatu eta... Liberalen aurka borrokatu zuten «Tío Tomas», monarkiko po-

rrokatua, Delitu politikoen borroera, gora Fernando VII, GORA!

1833ko kronikak hala diote, «no dudo en mostrarse cruel en la represión de los liberales ni en emplear el terror para mantener controlado el territorio...»

Euskal Herrian ordea, heroia dirudienez, bere museotoxo eta guttiz... nork ulertu?

Gure desagertzearena aspalditik zetorren...

Txorittua, nurat hua bi egalez airian, / Espainalat jauiteko elhurra dut bortian, / Algarreki juanen gutuk alhurra hurtzen denian.

Hantxe agertu zen bere uhartxoren brankan Agosti Chaho, euskal kantutegia egin zuena, eus-

kaldun porrokatua orduan ere euskalkidetasuna bultzatzen.

Saiatu hintzen herorri ere Tomas Zumalakarregi bere onera ekartzen; indarrean zegoenean zergatik ez zuen finkatu gure lurraldea erregearekin... betikoa.

Hi ere uharte diaspora honetan bizi haiz, pozten nauk elkar ikustea... 1844 lehenago aldizkaria erabat euskaraz atera huen, zenbat urtez urte... mende eta erdi geroago ia aurre pausorik ez zegoen.

Errepublikarra eta dirudienez ez zitxoan oso ondo ikusia ez orduan eta ez gero.

Nork gogoratzen du ere Jose Antonio Zumalakarregi? Liberala ere Espainiako Inkisizioa deuseztatu zuen gizona, Eliza eta Erregearen kontra neurrik hartu zituen gizonak eta azkenean Valladoliden desterrua sufritu zuenak... bai Jeneralaren anaia...

Herrixumeak zer zihoen? Xalbador bertsolari fina hil eta hogeita hamalau urte geroago iritsi nintzen bere baserrira, oraindik baserria ia garai bateko estutasun berdinetan.

Bere baserri bideko azken aldai igo orduko, bide bazterreko gaztaina zahar ikaragarri batzuk xii-mika ari ziren, ardi tartean ukuiluan sartu eta zirritu barretetik zetozen eguzki izpiak katu eta libre zeuden oilo batzuk belar gainean berotzen zituzten, abere lepoko ezkilak ilaran armiarma sa-reen babesean eta nola, horrelako egoera batean, mendi baretsuen ikuspegiaren aurrean ez txunditu.

Hola mintzo zirena gutaz hitz erdika, / Zure kontzientzia dukezu kivilika, / Zure ur hortaz, otoi, gu ez benedika, / Eskualtasuna berez ez da politika...

Xalbador.

G Gutunak

Bihotz Handiko 'Mokolo'

Larunbateko (apirilak 17) pailazon festa benetan sarkorra eta hungigarria izan zen. Tolosako Leidor antzokian azeartistataldea, azegizon-ema kume kategorikoak! Mundu honetan artista gutxi izan ohi da. Eta pozik bizi direnak ere gutxi.

Sentipenak eta pozak, txaloak eta malkoak, txalo-zaparradak eta bihotz estutasuna... hori guztia sentitu genuen Mokolo zenari egindako ohorezko omenaldi-agurrean. Pailazoek begirada zintzoa behar dute eta barruan berezko sentiberatasuna. Horrelakoa genuen Iñaki Odriozola, *Mokolo*.

Poza ere ez da erraza. Zerk eragiten duen poza eta zerk galarazten, zerk indartzen duen eta zerk moteltzen, askotan ez dugu garbi ikusten. Baina ederki asko antz ematen diogu pozari eta pozik ezari. Barrez eta negarrez, txaloz eta malkoz honelaxe egon ginen ha-

sieratik: Poxpolo eta Konpainiaz, Potxin eta Patxin, berriro Poxpolo beste hiru lagunekin; ondoren, Hipo eta Tomax; gero Txirri, Mirri eta Txiribiton hirukote bikoiztua; azken urren Gari, Montxo eta Joselontxo; azkenik Porrotx eta Mari Motots; eta bukaera-amaiera zoragarri eta hungigarria eginez, berriro Poxpolo.

Apirilaren 17an sentipen ugari bizi izan nituen. Bakarrik hauxe azzimarratu nahiko nuke: maitasunak argitzen duela gaua. Horixe izan baitzen Mokoloren historia gaztea. Gauaren esperientzia denok bizi dugu, eta nahi baino gehiagotan gainera. Bizitzaren norabide guztiak iluntzen direnean eta ordura arte argi ikusten zentuenak begi-bistatik galtzen dituztenean, gauaren esperientziak zauritzen zaitu.

Eta gauaren esperientziak giza bizitzaren alor guztiak har ditzake. Alor personalak adibide asko uzten digu: geure tristura, geure za-

lantzak, geure ilusio eroriak, geure harremanen zailtasunak, geure barruko samin arrazoak gabeak... Eta sufritu egiten dugu. Hala ere, pailazo gehienak bat eginda ikustea, a zer armonia, ze zoragarria... Nik uste maitasunez sendatzen direla zauriak. Maitasunak argitzen dituela gauak. Maitasunak dena berri egiten du.

Mokolok bazekien asko honetan. Bera apala, alaia, gertukoa, etxekoa, herrikoa eta bihotz handikoa baikenuen. Badakit gizarte korapilatsu honetan maitasunaz hitz egitea bigunkeria gerta daitekeela zenbaitzat. Baina, maitasuneko algaraz ez bada, maitasun apurrez ez bada, ez dugu aurrera egingo. Aspaldiko zauriak edo eguneroko zauri berriak betikotzea besterik ez dugu lortuko.

Eskerrik asko pailazook. Eskerrik asko Poxpolo. Pixkanaka maitasunaren kalitatea gorendu duzutelako. Eskerrik asko Mokolo. Gatzak barrutik, gordean urtuz,

sortzen du bere eragina. Argiak ere inolako indarkeriarik gabe, pizte hutsez, desegiten du iluna. Argi honen testigu eta aitore izan zaren

Iñaki, izan dezazula argi bete hor zeruan. Urtuz gozatzea! Eskerrik asko Iñaki Odriozola.

Joxe Agustin Arrieta Egiguren.



Mokolori iragan larunbatean pailazoek egindako omenaldia. I. TERRADILLOS

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Aiztondora Egunean 200 lagun bildu dira bazkarian

Villabona » Hainbat ekitaldi burutu zituzten euskal preso eta iheslariei elkartasuna adierazteko, bereziki bailarakoei.

ERREDAKZIOA

Villabonako Errebote plaza euskal preso, iheslari eta hauen senideekiko elkartasunez bete zen atzo

egun guztian zehar. Kolektibo guztiari elkartasuna helarazteko egindako ekimena izan zen, baina bereziki Aiztondobailarakoei. 200 lagun inguru elkartu ziren plazan egindako bazkarian. Eguraldiak lagundu zuen aurreikusita zeuden ekitaldi guztiak egiteko. Goizean diana egin ondoren *Burdinen arteko herria* liburuaren aurkezpena egin zuten, euskal preso politikoen kolektiboari buruzkoa.

Herri kirol lehia izan zen ondorengo. Aizkoran, segan, trontzan eta korrika aritu ziren bailarako hainbat lagun. Lehia izan bazen ere, ondo pasatzeko gogoak irabazi zuen.

Bazkarian indarrak hartu ondoren, haurrentzako txanda iritsi zen, beraiei zuzendutako jokoak egin baitzituzten. Aiztondora Egunari amaiera emateko Kantu Jira egin zuten.



Errebote plazan bertan egin zuten bazkaria Aiztondora Egunean bildutakoek. A. IMAZ

Herri kirolek beraien lekua izan zuten goizean zehar. E. EZEIZA

Aste Iraultzailea aurkeztu dute

ERREDAKZIOA

Euskal Herria Sozialistak eta Engels Ateneoak Aste Iraultzailea aurkeztu zuten atzo Tolosako Errementari kalean dagoen Engels Ateneoan bertan. Lau hitzaldi egingo dira datorren astelehenetik ostegunera Ateneoan, guztiak 19:30ean hasita.

Hilaren 26an Rosa Luxemburgoren *Erreforma edo Iraultza* liburua aurkeztuko dute, «marxismoak erreformismoaren aurrean defendatzen duen alternatiba iraultzailea argitzeko». Hilaren 27an Preobrazhenskiren *Anarkismoa eta Komunismoa* liburua aurkeztuko dute, «anarkismoaren eta marxismoaren arteko eztabaidan bota izan ziren gezurrak ezeztatze»ko. Hilaren 28an *Kapitalisten*



Atzo Engels Ateneoan egindako aurkezpenaren une bat. I.G.

erasoak eta langile mugimendua izeneko hitzaldia emango dute, «egun bizi dugun egoeraren inguruan hausnartu eta hau eraldatzeko programa argitzeko». Hilaren

29an Nikaraguako iraultza sandinistari buruz hitz egingo dute, «langile mugimenduen iraganezko garaipenetatik eta porrotetatik ikasgaiak ateratzeko».



Elikagaiez gozatuz Berdura plazan

TOLOSA » Udalak antolatuta eta Slow Food mugimendua bultzatu asmoz, Jokin Zabala sukaldariak pintxoak prestatu zituen atzo Berdura plazan. Lehenbizi, goizean, Zerkausian egin zuen eroketa eta gero Berdura plazan sukaldatu zuen: kalabazin lamina, ziza nahaskiarekin eta laguntzeko ziza krema edalontzi txikietan. Guztira 120 pintxo banatu zituzten eta probatu zituztenek sukaldaria zoriontzen zuten. I. GARCIA

Iragarki laburrak

LANA

- **Ileapaintzailea.** Ibarra 1000 ilea-paintdegi batek laguntzailea behar du. metxa2@yahoo.es. Deitu 609 79 27 87 telefono zenbakira.
- **Lana.** Emakume bat eskaintzen da lan egiteko arratsaldetan. Deitu 605 742 696 telefono zenbakira.
- **Zerbitzaria.** Tolosako kafetegi baterako zerbitzaria behar da. Larunbat arratsaldeetarako. Espe-

rientziaduna. Deitu 680 10 39 59 edota 635 75 25 23 zenbakira.

SALGAI

- **Lokala.** Irurako Laskibar bailaran lokala salgai, N-1 errepidearen ondoan. 118m², 78.000 euro. Deitu 645 72 19 47 telefono zenbakira.
- **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean, atiko argitsua. 50 m², egoera onean. Prezioa 153.260

euro (25.500.000 pezeta). Interesatuek deitu 943 43 00 20 telefono zenbakira. Zuzeneko salmenta.

GALDUTAKOAK

- **Kamera.** Argazki kamera galdu zen igande eguerdian Alegian. Zerbait ikusi zuen edonork mese-dez dei dezala 943 65 32 87 zenbakira.

Plaza Etxeberri
JATETXEA

Plaza Etxeberri
943 65 32 87

egin ezazu gure arratsaldea 943 69 13 36 telefonan!!!

Zerbitzaria
behar dugu
616 647 869

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAK
KOORDINATZAILE POSTURAKO LANGILE BAT BEHAR DU.

Kontuan izango da :

- Komunikabideetan eta kudeaketan esperientzia izatea.
- Euskalgintzaren ezagutza izatea.
- Kurrikuluma galtzaundi@galtzaundi.com helbidera bidali behar da.

Epea , maiatzak 14

E Elkarrizketa

SEGUNDA IZTUETA ARMENDARIZ » Artista



AGURTZANE BELAUNZARAN

«Ikasteko adinik ez dago, norbere egoera hobetzeko grina behar da»

Berastegi » Bizitzaren filosofia sorkuntza du lztuetak; margolanak, zeramika, altzariak zahar berritzea eta objektuei erabilgarritasuna ematea.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Meaka baserrian sartzea, denboran atzera egitea; danbolinak, lakariak, sega potoak, arotz erremintak, baiak, kafe errotak, uztaerriak, garai bateko eltzeak, gurdiak, aldabak... Antigoaleko gauzez beterik dago baserriko sarrera. Horman egurrezko ganbela, erdian kristala duena eta kristalaren atzean Segunda Iztueta Armendariz (1928, Berastegi) sukaldan.

Sukaldeko hormetan, berastegiarrak margotutako margolanak zintzilik. Egongelan, garai bateko altzariak berak zaharberrituak.

Berastegiko soldaduenak izan ziren maletak dekorazioaren parte. Egurrezko gazi kutxaren barruan, berak egindako zeramikazko lanpara. 82 urte betetzear dituen emakume honen eskuek, gauzei forma eta erabilera emateko artea dute. **Baserritarra jaiotzez, tindatzailea ofizioa eta erretiroa hartu zenuenetik eskuetan pintzela edo lokatza hartzen dituzu egunero.**

Erretiroa hartzean margotzen hastea eta zeramika ikastea salbazioa izan da. Bizipoza da niretzako, egunero Tolosako kultur etxera etorri eta margo bat edo pieza bat

sortzea. Adin ezberdinetako jendea biltzen gara, iritziak tartekatzen ditugu, teknikak landu, ferietara joaten gara zeramikako teknikak ikusi eta ikastera, sormena lantzen dugu eta garrantzitsuen giro oso ona daukagu.

Ikasteko adin guztiak dira onak orduan?

Zeramikako tailerreko zaharrena naiz, uztailean 82 urte beteko ditut eta egunero gauzak ikasten ari naiz; buztina egosteko teknikak, materialen nahasketa, azken ukituengarrantzia, koloreak... Pieza bakoitzarekin, lezio bat ikasten dut Margolanekin ere berdin. Koloreak, formak, irudiak pentsatu eta pintzelarekin irudikatu. Ikasteko adinik ez dago, gogoia behar da, norbere egoera hobetzeko grina. Erretiroa hartzean, denbora libre iristen

da gure bizitzara eta zer egin ez dakigula geratzea txarra da. Sorkuntzan eta modu aktiboan denbora pasatzea osasungarria da, positiboa auto estimuarentzako ere.

Medikuen errezeten ordez, bizitza aktiboa proposatzen al duzu?

Duda izpirik gabe. Jubilatut garen guztiok egin beharrekoa gainera, batzuk baratzean, besteak josten, igerilekuan, margotzen... baina aktibo. Egunaren amaieran, zerbait egindako sentsazioarekin oheratzen naiz, lotarako pastillen beharrik gabe.

Lokatari forma ematea hain gutuko eta etxean egurrezko labe bat egin duzu.

Garai bateko moduan egosten dugu zeramika etxean. Nire irakaslea eta ikasle ugari hurbiltzen dira ona. Tailerrean labe elektrikoetan

egiten dugu eta hemen Berastegin lekua dugunez, egurrezko labea egin nuen eta hementxe pasatzen zaigu denbora, zeramikaren prozesuari begira.

Margolanak, zeramikako piezak, antigoaleko objektuak... museo txiki bat dirudi Meakak!

Museoa edo... Generazio berriek izan ginena, lehengo bizimodua, gogoratze lekua da baserria. Urteetan bildutako altzari eta objektuak zaharberritu ditut eta baserriko dekorazio bihurtu dira. Askok basurera botatzeko zituzten pipiak jotako altzariak edota sutan erretzeko eta nik konpondu eta erabilpena eman diet. Ganbara berriez, antigoaleko objektuz betea dut; sehaska, berogailuak, armairu zaharrak, egurrezko komunak, gurutzak, artilezko koltxoia duen ohea.... Berastegiko eta Astigarragako eskolatik etorri dira baserria ikustera, aitona amonaren garaiko bizimodua eta tresnak zertarako eta nolakoak ziren ikasi zuten.

Birziklapena ez da, beraz, oraingo kontua?

Nire kasuan ez, orain modan jarri bada ere. Hala ere, gauzak erabili eta azkarregi botatzen dira. Kontua gauzei erabilgarritasuna bilatzen jakitea da. Gauzarik hutsalenari funtzioa ematea. Baratzeko zumitakin zestoak ere egiten ditut eta ganbara igotzeko eskailera, sagardoa prentsatzeko erabiltzen diren lega, kabilia eta prentsarekin egin nituen.

Urteetan bildutako altzarietan eta objektuetan izango duzu baten bat kuttuna.

Eskolara eramaten nuen kriseilua oso maitea dut, baita gazte nintzeanean dendan erabiltzen nuen pisua ere. Pio Barojaren etxean zeuden hainbat armairu eta liburutegi ere Meakan daude eta hauei kariño eta errespetu handia diet.

Zein altzari falta zaizu baserrian?

Berastegiko elizako konfesatokia falta zait etxean. Elizak pisu handia izan du gure bizitzan. Gauza on asko eman dizkit, beste batzuk agian ez hain gustukoak. Baina gozoan dut txikitzen konfesatuzera joaten nintzenean, apaizak mutilei muxu ematen al nien galdetzen zidan eta nik ezezkoa. Gezurra esaten nien! Muxu ematea orduan bekatu zen eta! Den gauza goxoarekin.

informazio

i

Kobraketa kanpainaren irabazleak



Sausta jatean
bi pertsonentzako otordua:
**ROSARIO AMUNDARAIN
ESNAOLA
(IKAZTEGIETA)**

Lur-Lan produktuen saskia:
**JULIAN AZPIROZ
BENGOETXEA
(IRURA)**

SAUSTA



AZKEN TXANPAN



Jon Aizpuruak Portugalgo Estoril herriko malekoia erakusten duen argazkia bidali du, «ekaitz giroak ematen dion argi bereziarekin», argitu du. JON AIZPURUA



Lurdesek Argentina iparraldean dagoen Mendoza herrialdeko Aconcguauren oinetan dagoen Puente del Incaren argazki hau bidali du. LURDES



Lehen argazkia Xabier Lozanorena da eta autobusetik bertatik atera du, egusentia ikusi daitekeela: «Oporrak, egunerokotasunaren larrialdietarako irteerak» bezala batailatu du. XABIER LOZANO


Argazki lehiaketa » Hiru sari daude jokoan: bi pertsonentzako bi gau Iturbe eta Artiketxe landetxeetan edo Larte gaztagileen bi gazta eder.

ERREDAKZIOA

XI. HITZA Argazki Lehiaketa azken txanpan dago. Asteazkenean bertan, hilak 28, bukatuko da argazkiak bidaltzeko epea. [\[an@tolosaldeko-hitza.info\]\(mailto:an@tolosaldeko-hitza.info\) posta elektronikoko bidez edota posta arruntez egin daiteke \(Araba etorbidea 5, behea. 20.400 Tolosa\), baina kontutan hartu hilaren 8tik](mailto:tolosalde-</p></div><div data-bbox=)

aurrera jasoko ditugun argazkiak ez direla Lehiaketan sartuko.

Datozen egunetan zehar argitaratuko ditugu bidalitako argazki guztiak, eta maiatzaren 2an publikatuko ditugu zortzi argazki finalistak, harpidedunen bozkak jasotzen hasteko. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunean ere ikusi ditzakezue orain arte jasotako argazkiak.



Paki Masak Cañon del Rio Loboko kobazuloaren argazkia aukeratu du. PAKI MASA

berria

Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak
hautatzeko probarako deialdia

PROBAKO EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkean.
ORDUA: arratsaldeko 16:00etan.

BIZKAIAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: EHUren Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko aularioan, 1.1 gelan.
ORDUA: eguerdiko 12:00etan.

ARABAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: BERRIaren Gasteizko egoitzan: Bizenta Mogel 6, behea.
ORDUA: goizeko 09:30ean.

NAFARROAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: BERRIaren Iruñeko egoitzan: Iratxeko monasterioa, 45. eskuineko eskailera, 13. ezkerrean.
ORDUA: goizeko 10:00etan.

Probara curriculuma ekarri behar da

III. Ñañarri Rallysprinta Vilariñotarren etxera joan da

III. Ñañarri Rallysprinta » Joseba Zapirain eta Estibaliz Armendarizen autoak kolpea hartu zuen bigarren erlojupekoan.

ASIER IMAZ

Eguraldi bikaina; 69 auto; 138 partaide; hiru erlojupeko; 180 boluntario muxu-truk lanean; ehunka ikusle; 11 kilometro inguru; ibilbide berria... hori nahikoa ez eta bertan atera zen diru guztia Anoetako Ikastolarentzat.

Gozamenerako arrazoi ugari eskaini zituen atzo Amezketan eta Alegia artean jokatu zen III. Ñañarri Rallysprintak.

Karrera ikusgarria

Lehen erlojupekoa 15:00etan hasi zen Amezketan eta 15:06 ez ziren Joseba Zapirain Alegiara iritsi ze-

nean. Estibaliz Armendariz kopi-lotu berrobitarra berarekin zihoan Peugeot 206 WRC autoan. Bigarren erlojupekoan ordea, kolpea hartu eta lehia utzi beharrean aurkitu ziren.

Rallysprintean kotxe bat nagusitu zen, Vilariñotarren Subaru Impreza WRC. Hiru txandak irabazi zituzten anai-arrebek, nahiko erraz gainera. Bigarren iaizko garailea gelditu zen, Xabier Lujua. Hirugarren denborarik onena Mikel Urkiolak lortu zuen.

Ander Vilariño

Irabazlearen esanetan, hirugarren txandan aitak eta arrebak garaipena ziurtatzeko eskatu zioten, errenta handia zuela eta arriskurik ez hartzeko. Gidariak ordea lehia-kortasuna odolean duela erakutsi zuen; aurrez egindako bi denborak erraz hobetu baitzituen azken txanda honetan.



Ander eta Angela Villariño lehen erlojupekoan, helmugara iritsi aurreko errebutan. ASIER IMAZ



Ikusleentzat edozein txoko ona zen Rallysprintaz gozatzeko. ASIER IMAZ

» SAILKAPENAK

Lehen erlojupekoa.

1. Ander Vilariño	05:35"
2. Joseba Zapirain	+14"
3. Xabier Lujua	+15"

Bigarren erlojupekoa.

1. Ander Vilariño	05:36"
2. Xabier Lujua	+13"
3. Iban Tarsicio	-

Hirugarren erlojupekoa.

1. Ander Vilariño	05:26"
2. Xabier Lujua	+16"
3. Mikel Urkiola	-'

Sailkapen orokorra

1. Ander Vilariño	16:37"
2. Xabier Lujua	+44"
3. Mikel Urkiola	+1:18"
4. Rafa Ateka	+1:43"



Udaberriaz gozatzeko, musika

TOLOSA » Udaberriko Kontzertua girotzeko, Plaza Zaharrean elkartu ziren lehenik dultzaineroak, Buruhandietan eta erraldioen konpartsa eta Musika Banda. Bertatik abiatu ziren kalejiran Plaza Berrira, Kontzertuaren

kokagunera. *La Grande Evasion* piezarekin zabaldu zuten Udaberri Musika Bandakoek. Bakarkako lanaren ondoren, dultzaineroek eta erraldioen txarangak Bandakoekin bat egin zuten, hiru pieza joaz. A. IMAZ



Dantzaren bidez elkar ezagutzen

TOLOSA » Herrialde Katalanetatik etorri ziren atzo Torrelles de Llobregat herriko dantzari txikiak, Udaberrik gonbidatuta. «Kultura desberdinak ezagutzeko» eta «haurren artean harremanak sustatzeko» aukera polita sortu du ekimenak. Horren adibide, euskaldunek eta kataluniarrek arratsaldean eskaini zuten dantza emanaldia izan zen. A. IMAZ



Gomazkoak balira bezala, tolestuta

IBARRA • Atzo, Ibarra kirolegian gimnastika erritmikoko B mailako eskolarteko txapelketa jokatu zen. Goizean 10:00etatik 14:00etara alebinak, infantilak eta benjaminak aritu ziren eta arratsaldean, benjaminak taldeka nahiz banaka. Guztira ehun gimnastatik gora aritu ziren beraien abileziak erakusten. Belabietako eskolatik ere hainbat neska aurkeztu ziren taldeka nahiz banaka. E. EZEIZA

Pintxoak muxu-truk atzo goizean, Tolosako azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso animosoa suertatu zen. Eguraldia lagun zela, eta udaletxeak antolatuta, Jokin Zabala, Amasako Iturrigoxoko sukaldaria pintxoak prestatzera etorri zen. Erosketak azokan bertan eginik, kalabazin lamina xixaz bete izeneko pintxoak prestatu zitun berdura plazan jarritako sukaldean.

Aukeran ere barazki desberdin asko izan zituen. Babak, illarrak, tomateak, azaloreak, aza errepolloa edota lekak izan zituen beste enarten. Hauekin ziza dexente ere izan ziren.

Berdura plazan barazki apaingarri asko ikusi izan genituen. Bai lorontzitan, baita moztu berriak ere. Geranioak, artze desberdin asko, koniferak edo eta usaingarriak izan ziren.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Geraneoa	2,00	-
Menta	1,50	6,00
Salbia	1,00	1,20
Zainzuria	2,80	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Zizak	58,00	100,00
Onddoak potetan	9,00	-

Fruta

Kiviva	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urura	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak (sorta)

Tipula berria	1,50	-
Tomatea	3,25	4,00
Porruak	1,00	4,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Patata berria	1,50	-
Letxuk	0,50	0,80
Gazta berria	17,00	-
Ardi gazta	14,00	24,00

Produktuk ekologikoak

Intxaurra	4,00	6,00
Azenarioa	2,00	2,40
Tipula	1,75	2,00

Louari Abdelfetah berriro garaile

Leitza » 32. Herri Krosa jokatu zen atzo arratsaldean; probak duen arrakastaren erakusle, 220 lagunek hartu zuten parte.

ERREDAKZIOA

Haur, gazte eta heldu, 220 lagunek hartu zuten parte Aurrera kirol elkarteak antolatutako Leitza 32. Herri Krosan. Eguraldiagatik bakarrik ez, giro ederra egiten zuen atzo arratsaldean eskualdeko herrian.

Sailkapen orokorrean, mutiletan, iazko irabazlea errepikatu zen. Louari Abdelfetah izan zen irabazle garbia. Lehendabiziko itzulitik aurre hartu zien gainerako lasterkariei, eta proba guztian lidergoa mantendu zuen. Hala ere, ezin izan zuen Andres Perezen marka gainditu. Hark baino hiru minutu gehiago behar izan baitzituen 10 kilometroak egiteko. Nesketan berriz, Iruñeko bat izan zen garaile, Maitane Melero hain zuzen ere.

Leitza 32 ere fin aritu ziren atzokoan. Mutiletan, Fernando Irazoki izan zen plazako helmugara iristen lehena. Nesketan berriz, dametako bat, Ane Egizabal hain zuzen ere. Honek 22 minutu eta 34 segundo behar izan zituen bost kilometroak zeharkatzeko.

Krosa amaitu ostean, antolatzaileak gustura agertu ziren atzokoarekin. Beraien esanetan, «inoiz baino jende gehiago atera da aurretik eta tartean leitzar ugari». Horren arrazoitzat, eguraldi ona eta Axuriaren lehia aipatu zituzten. Oro har, gertaera berezirik edo ez behar garrantzitsurik ez zen izan. Horien artean, aipatzekoak dira dena den, neska bat mareatu egin zela eta mutil batek txonkatilean mina hartu zuen.

Parte-hartzaile guztiak eskuan zerbait zutela joan ziren etxera. Helduak kamisetekin eta txikiak dominekin.

» SAILKAPENA

Benjaminak

- **Mutilak.** Xabat Illarregi.
- **Neskak.** Amaia Vicente.

Alebinak

- **Mutilak.** Mikel Etxaburua.
- **Neskak.** Saioa Ugalde.

Infantilak

- **Mutilak.** Iker Iturria.
- **Neskak.** Amaia Ezkurdia.

Kadeteak

- **Mutilak.** Iñaki Zabaleta (19' 35").
- **Neskak.** Ane Intxausti (1' 31").

Juniorkak

- **Mutilak.** Julen Sagastibeltza (30' 58").

Seniorrak

- **Mutilak.** 1. Louari Abdelfetah (31' 41"), 2. Jaquad Boualame (32' 48"), 3. Javier Nagore (32' 54").
- **Neskak.** 1. Maitane Melero (19' 04"), 2. Marta Muñoz (19' 37"), 3. Silvia Ocaña (21' 01").
- **Lehendabiziko mutil leitzarra.** Fernando Irazoki (36' 28").
- **Lehendabiziko neska leitzarra.** Garbiñe Hernandorena (22' 37").

Beteranoak


- **Mutilak.** Oscar Primo (33' 02").
- **Damak.** Ane Egizabal (22' 34").



Goian Irazoki, lehen leitzarra. Behean korrikalari multzoa. ESTI EZEIZA



Junior mailakoak irteera puntuan. ESTI EZEIZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



18°
9°

GOIZA LAINOTUA
ARRATS. LAINOTUA
BEROENA 22°
HOTZENA 9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Dantza

■ **Aresoko haurrak.** Legorretan ospatuko den V. Dantzari Txiki egunean egongo dira gaur aresorarrak 11:00etatik aurrera.

Deialdiak

■ **Baliarrain.** Txekor jatea maiatzaren 1ean. Txartelak 25 eurotan salgai Zartagin.
■ **Hernialde.** Maiatzaren 1ean sardina jatea. Txartelak 15 eurotan Ostatu tabernan edo udaletxean.

Erakusketak

■ **Alegia.** Arkatz-ziriz eta boligrafo-gelez egindako margolanak zintzilikatu ditu Luis Mari Nuñez ano-

etarrak Jubilatuen tabernan hilaren 30a arte.

■ **Tolosa.** Mikel Telleriaren obrak GKO Galleryn, maiatzaren 1a arte.
■ **Tolosa.** Naturaldiak antolatu duen *Biodibertsitatea* erakusketa ikusgai Zerkausion, hilaren 30a arte.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz L. Amaro zuzendatzailea, 9, 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



A Agurrak



Urte askoan!

Laiane Otamendi (Tolosa).

Gaur 2 urte. Zorionak eta muxuak etxekoan partetik, bereziki Maialen eta Izadiren partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Eztarri gozoak kaleak alaitzen

MUSIKA • Euskal abestiak kantatuz kalejiran izan ziren atzokoan Aste-asun (goiko argazkian) eta Tolosan (beheko argazkian). Eguraldia ez zen aitzakia izan eta hainbat lagun elkartu ziren bi herrietako kaleak alaitzeko. EE./I.G.



- Sebas Martinez, Trinketeko hautatzailea.
- Iritzia.

UROLA KOSTA BEREZIA:

- Zestoa Pilota Eskola.
- Elkarrizketa: Patxi Azkargorta.
- Posterra: Zestoako haurrek
- Emakumeak pilotari.
- Erremontea Azpetiko eskolan.

Pilotazale, eman hauspoa etorkizuneko pilotariei.

Egin harpidedun!

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren euskarazko aldizkarian

Deitu telefonoz: 943-47 14 63

Idatzi helbide elektroniko honetara:

kantxatik@gmail.com

LASKORAIN IKASTOLA
Ate irekien saioa, maiatzaren 3an, 17:30ean

Batxilergo matrikula, maiatzaren 3tik 12ra

**KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA
ETA ELEANITZA 0-18 URTE**

www.laskorainikastola.net tolosa@ikastola.net 943 697 127